

UPV/EHU Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2017)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako erantzun-taulan (7. orrialdean) galdera bakoitzari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. Zein dago zuzen euskara batuan?
 - a) Hilak 5ean bukatzen da lanak aurkezteko epea.
 - b) Abuztuaren 20ean betetzen ditut urteak.
 - c) Hilak 31 izaten da kobratzeko eguna.
 - d) Bihar, maiatzak 1, langileen eguna da.

2. *Saltzaile ibiltzen zen* _____.
 - a) herriz herri
 - b) herririk-herri
 - c) herriz-herri
 - d) herririk-herrira

3. Nor da “mordoilozealea”?
 - a) Zuhurra, diruzalea.
 - b) Hizkera nahasia erabiltzen duena; bi hizkuntzako hitzak erabiltzen dituena.
 - c) Jantzkerazaharra, baldarra erabiltzen duena.
 - d) Odolkiak eta beste tripakiak gustuko dituena.

4. Ondoko multzoetako batean bada izen bat tokiz kanpo. Zer multzotan?
 - a) Belauna, ukondoa, orpoa, orkatila.
 - b) Hiriburu, lurralde, eskualde, herrialde.
 - c) Maizterra, apopiloa, jabea, ugaztuna.
 - d) Adorea, kemena, ganora, ausardia.

5. Aukera ezazu esaldi zuzena.
 - a) Ez du zertan egia izan behar.
 - b) Ez du zertan egia izan beharrik.
 - c) Ez du zertan egia izan.
 - d) Ez du zergatik egia izan beharrik.

6. *Zein izan da partidaren emaitza?* Aukeratu erantzun egokiena.
 - a) Bana geratu dira.
 - b) Bi-bat egin dute.
 - c) Hiru-huts egin dute.
 - d) Bi-bi geratu dira.

7. *Datorren urteko eskolak* _____ *emango ditut.* Zein da egokiena?
 - a) Magisteritzan
 - b) Magisterion
 - c) Irakasle Eskolan
 - d) Magisterioan

8. *Mikelek bere etxera gonbidatu* _____ *angulak jatera.* Aukeratu egokiena.
 - a) zigun
 - b) gintuen
 - c) digu
 - d) zizkigun

9. *Akatsak akats, itxurazkeo lana egin duzula uste dut.*
- Akats asko ditu, baina badu zerbaiten antza lan honek.
 - Akatsen batzuk baditu ere, ontzat ematen dut egin duzun lana.
 - Itxurari baino gehiago akatsak ez egiteari begiratu behar zeniokeelakoan nago.
 - Aurkezpena ona da, baina egin duzun lana akatsez beteta dago.
10. *Bigarren platera txakurrei bota zien, eta postrea _____.* Zein da egokiena?
- baita
 - halaber
 - baita ere
 - ere bai
11. *Goizkeo _____ abiatu ginen _____.*
- hirutan / Donostiaruntz
 - hiruretan / Donostiarantz
 - hiruetan / Donostiruntz
 - hiruretan / Donostirantz
12. _____, *ez nintzen elurretara joan.*
- Gaixotu bait nintzen
 - Gaisotu bainintzen
 - Gaixotu bainintzen
 - Gaixotu baitnintzen
13. _____, *aurkezpenak egingo ditugu.* Hurrengoetatik zein **EZ** da zuzena?
- Lehenago
 - Lehenik
 - Lehenbizi
 - Aurrena
14. *Oso esanekoa da; agintzen dioten guztia _____.*
- ez egiteko aitzakiarik aurkituko du
 - behin baino gehiagotan errepikatu behar zaio
 - otzan-otzan egiten du
 - gaizki egiten du
15. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?
- Han bazegoen zuhaitz altu bat, zeinen adarretatik izarrak esekitzen baitziren.
 - Ongi damutu da neska horrekin ez ezkontze arren.
 - Orduan eta zaharrago izan jendea, orduan eta lotsagabeago bihurtzen da.
 - Hain zegoen mozkortuta, ez zuela etxerako bidea aurkitu ere.
16. Zein da zuzena?
- Bai hemen nahiz beste zenbait lekutan izango dituzu arazoak.
 - Herri horiek kanpotarrak erakartzeko prestatutak daude.
 - Ez dago horrenbeste erosotasun hotelean bezala.
 - Lagunarteko afaria datorren asteburuan egitekotan dira.
17. *Guk, _____ nagiak atera gabe gixela, ez genuen txantxa hura ulertu.*
- ordutik
 - artean
 - dagoeneko
 - honezkero

18. *Parisen izan naiz asteburuan eta _____ bat ekarri dizut.*
- oroigarri
 - oroitzapen
 - oroipen
 - oroimen
19. —*Zu ez zara hori egiteko gauza.* — _____
- Bai naizela!
 - Bai zera!
 - Ez, hori bai ezetz!
 - Izango ez naiz, ba!
20. *Mirenek daraman bizikleta hori norena da?* _____ .
- Miren berarena.
 - Mirenena berea
 - Mirenena berarena
 - Mirenena bera
21. *Ez zuen etsi _____ aukera guztiak agortu _____.*
- nahiz eta / arte
 - baita / ere
 - nahiz eta / ere
 - harik eta / arte
22. Zein zerrendatan ageri da ortografia-akatsen bat?
- Otso, etsai, jaitsi, zintzarri, leiha
 - Hurbil, saihestu, horma, kutsadura, hesi
 - Zozo, etsi, sexu, testu, zital
 - Sustatu, milioi, leiho, goxo, ziur.
23. *Zer ordutan ateratzen da Madrilerako autobusa?* _____ .
- Hiru terdian
 - Hiruetan
 - Hiruretan
 - Hirutan
24. *Etxeko lorategia _____ diseinatua da.*
- aitonaren partez
 - aitonak
 - aitonarengatik
 - aitonarengandik
25. _____ Axular zen ezagunena.
- Idazle klasikotan
 - Idazle klasikoengan
 - Idazle klasikorengan
 - Idazle klasikoetan
26. *Altxor ezin preziatuagoak aurkitu zituzten _____ bestaldean.*
- itsasoko
 - itsasoaz
 - itsasotik
 - itsasoan

27. _____ da tematia eta egoskorra _____ ez baitago berarekin hitz egiterik.
- Zein / non
 - Halakoa / nolakoa
 - Hain / non
 - Zenbat / nola
28. Zein da zuzena?
- Kristorenak esan zituzten elkar.
 - Kristorenak esan zion batak besteari.
 - Kristorenak esan zizkioten elkarri.
 - Kristorenak esan zituzten elkarri.
29. _____ kontratua egin didate. Aukeratu Euskara Batuan zuzen idatzita dagoena:
- Behin-behineko
 - Behin-betiko
 - Behin behineko
 - Behin-betirako
30. Esaldi batean **EZ** dago ortografia akatsik. Zeinetan?
- Lehoiak hies egin zuen lehiotik.
 - Lehoiak ihes egin zuen leihotik.
 - Lehoiak ihes egin zuen leihotik.
 - Lehoiak ihes egin zuen lehiotik.
31. Lan _____ gauza asko lortzen dira. Zein da egokiena?
- egitez
 - egiten
 - egiteagatik
 - eginez
32. Zein da zuzena?
- Patxi fraile bezala joan omen da.
 - Patxi fraile joan omen da.
 - Patxi frailetzat joan omen da.
 - Patxi fraile gisa joan omen da.
33. Berehala konturatu ginen ekaitza laster _____.
- zeturrelaz
 - zeturrenaz
 - bazeturrela
 - zeturrela
34. Nola idazten da letraz 1.672 zenbakia?
- Mila seirehun eta hirurogeita hamabi.
 - Mila seiehun eta hirurogeita hamabi.
 - Mila seiehun hirurogeita hamabi.
 - Mila seiehun eta hirurogeitahamabi.
35. Honako esaldi hauetako bat bakarrik dago ongi.
- Kafe bat hormarekin, mesedez.
 - Zihur zaude ospitaletik atera dela?
 - Horri hau nahikoa nazkante da, ezta?
 - Arga hibaia Etxauri aranetik pasatzen da?

36. Aukeratu ezazu zuzena:
- Ez dakit etorri den.
 - Ez dakit etorri bada.
 - Ez dakit etorri denik.
 - Ez dakit etorri baden.
37. Aukeratu ezazu zuzena:
- Ezagutzen dut mutil bat bizikletez dena dakiena.
 - Ezagutzen dut mutil bat bizikletetaz dena dakiela.
 - Ezagutzen diodan mutil batek bizikleten gainean dena daki.
 - Ezagutzen dudan mutil batek bizikletetaz dena daki.
38. *Besteak kritikatzan _____, geuri egindako kritikak hartzen ere jakin behar dugu.*
- ez ezik
 - ezean
 - izan ezik
 - ezik
39. Hurrengoetatik zein dago **OKER**?
- Mikel ona da, baina Jon hobe.
 - Mikelekin mintzatu gara, baina hobe da Jonekin hitz egitea.
 - Mikelek ongi egin du, baina Jonek hobe.
 - Mikelek ongi egin du, baina Jonek hobeki.
40. *Inor baino hobeak direla uste _____ dira horiek.*
- dituztenak
 - dutenetakoak
 - dituztenetakoak
 - dutenekoak
41. Zeinek du puntuazio egokia?
- Zer ordutan etorriko zaren? galdetu dizut.
 - Ez esan gero, horrelakorik: bestela!
 - Gustatu zait; nolahi ere, luzeegia iruditu zait *Martutene*.
 - Bilborako, autobusa mesedez?
42. *Hiru _____ ikusi genituen, eta _____ agur egin genien.*
- neskatil / hiruri
 - neskatilak / hiruei
 - neskatil / hiruei
 - neskatila / hirurei
43. *Anttonek, berez oso tematia zenez, bere ideietan tinko _____.*
- zerion
 - zirauen
 - ziruditen
 - zekien
44. Zuzena aukeratu:
- XIX. Mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
 - XIX. mendeko autore batena da: *Parnasorako bidea*.
 - XIX-garren mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
 - XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.

45. Zein da zuzena?
- Ez ditugu lapitzik ekarri.
 - Ez dugu lapitzik ekarri.
 - Ez dugu lapitzik ekar.
 - Ez ditugu lapitzik ekar.
46. Hurrengo esaldietatik zein da zuzena?
- Zure anaiak esandakoa ez deritzot ongi
 - Ez dut ongi iritzi zure anaiak esandakoa
 - Ez deritzot ongi zure anaiak esana
 - Ez diot ongi iritzi zure anaiak esandakoari.
47. Zein da zuzena?
- Gurasoak eskolara joanarazi zizueten.
 - Gurasoek eskolara joanarazi zizueten.
 - Gurasoek eskolara joanarazi zenituzten.
 - Gurasoek eskolara joanarazi zintuzteten.
48. Zein da zuzena?
- Jose Luis Alvarez Enparantza: «Txillardegi» izengoitiz, 1929-an jaio zen.
 - Jose Luis Alvarez Enparantza («Txillardegi» izengoitiz) 1929ean jaio zen.
 - Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegi» izengoitiz, 1929an jaio zen.
 - Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegi» izengoitiz, 1929.an jaio zen.
49. *Arrantzaleen arteko gatazka areagotu egin da. Zein da esaldi horren esanahia?*
- Arrantzaleenganaino heldu da sarraskia.
 - Elkartasuna sortu da arrantzaleen artean.
 - Gutxitu egin da arrantzaleen arteko arazoa.
 - Hazi egin da arrantzaleen arteko konponezina.
50. Zein da zuzena?
- Bada jende asko programa hori atsegin duena.
 - Bai, han famili batekin egon nintzen ere.
 - Egun horretan irakaskuntzan dihardutenak jaia izaten dute.
 - Beste edozein lekuetan bezala, hemen ere ondo.

ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta idatz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra ariketaren amaieran dagoen erantzun-
taulan (hiru testuen ondoren, 13. orrialdean). Ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik.

1. TESTUA

Pospoloan

Urola Kostako atzoko *Hitzan*, Josune Zabala hizkuntza-ikertzaileak: «Belaunaldien hizkuntza transmisioa txikiagoa da egun». Bada, hona eszena bat, non amaginarreba batek esaten dion suhiari sentitzen duela, baina pospoloan daukala bazkaria. Suihiak ez baitio fitsik ere ulertu, esandakoaren funtsa argitu dio amaginarrebak, bazkaritarako sua pizteko pospoloak baliatzen ziren garaiko esamoldearen mamia: artean prestatu gabe zeukala bazkaria, pospoloaren puntako fosforoan (hortik pospolo).

Suihiak badaki zer den pospolo bat, baina seme-alabei pospolo bat zer den esplikatu hasi beharko luke esamoldearen transmisioa. Hiru erreferentzia hari daude eszenan. Atzo arte, ordea, familiako adin guztiak biltzen zituen erreferentzia-sare komunak: aitona-amonek, seme-alabek, bilobek pospoloarekin piztutako sutondo bera zuten transmisioaren gar. Baina gaur, erreferentzia komunik gabeko mundu martxa sekulakoaren egurats gorrian, zer eta nola transmititu?

Anjel Lertxundi
Berría, 2017-03-04

1. Zer gertatu da suhiaren eta amaginarrebaren artean?

- a) Amaginarrebak suhiari esan dionak ez duela zentzurik.
- b) Suhiak ez duela ulertzen zer gertatzen den bazkariarekin.
- c) Amaginarrebak ez duela bazkaria prestatu pospolorik ez duelako.

2. Hizkuntza transmisioa txikiagoa da gaur egun, ...

- a) familiak ez direlako sutondoan elkartzen.
- b) gizarte oso arin aldatzen delako.
- c) umeez ez dakitelako ezta pospolo bat zer den.

3. Idazlearen pasadizoaren arabera, ...

- a) hizkuntza-ikertzaileak aurreko egunean esandakoa orain ez da egia.
- b) suhiak ez zekien pospoloaren puntan fosforoa dagoela.
- c) hiru belaunaldien arteko harremana nabarmen aldatu da.

2. TESTUA

Poesia

1999an Unescok Poesiaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen gaurkoa. Atarikoetan zera zioen: “Geure mundu garaikidean ase gabeko beharrizan ugari daude estetikaren esparruan; poesiak bete ditzake horiek, baina horretarako haren komunikazio intersubjektiboaren zeregin soziala aitortu egin behar zaio, eta bere aldetik poesiak kontzientzia hartzeko pizgarri eta espresibide izaten jarraitu behar du”. Kontrakoa espero zitekeen arren, poesia gutxi du poesiaren aldeko aldarrikapen honek, alajaina.

Egun gorrixatuaren kariaz, poesia-emanaldiak egingo dira zenbait herritako kultur etxeetan. Ausartenek taberna-zuloetan ere programatuko dute, musikak lagundutako espektakuluren bat edo. Izan ere, aspaldi ikasi zuten kultura-kudeatzaileek haur txikiekin maiz erabiltzen den jarabearen teknika nahitaezkoa dela poesiaz ari garenean: gozagarriren bat eman behar zaio publikoari olerki-segida irentsiko badu, haurrari botikaren printzipio aktibo garratzak azukre-tanta batez mozorrotuta eskaintzen dizkiogun bezala.

Martxoak gaur 21 dituelako, baliteke gaur poetaren bat edo beste elkarrizketatzea irratsaioren batean, eta ez gehiegi harritu albistegietan ere agertzen badira eguraldiaren berri ematen duen tarte baina lehen (kirolak eta gero, jakina); hala bada, izen handiko sariren baten irabazlea izango da, horrek albiste modura aurkeztu izanaren koartada sinesgarriago egiten baitu.

Gaur haren eguna delako, poetei galdetuko zaie zertarako balio duen poesiak, eta zintzo erantzungo dute, ongi ikasita baitute eman beharreko erantzunen zerrenda: ahanzturaren kontra borrokatzeko, hitzetatik harago joateko, gizaki egiten gaituen dena delakoarekin konektatzeko... Eta erantzuten ari direnean, beren golkorako pentsatuko dute noiz izango den eguna zeinean futbolariaren bati galdetuko dioten zertarako balio duen futbolak.

Poesiak ez du ezertarako balio; gainerako arte-espresibideak bezain alferrikakoa da, ez baita komertziala. Horixe da bere balioa. Poesiak ez du mundua salbatuko, baina ni askotan salbatu izan nau.

Pilar Kaltzada

Deia, 2017-03-21

4. Unescok zera uste du:

- a) Poesiak nekez aseko dituela gizartearen behar estetikoak ez badugu bere premiarik aldarrikatzen.
- b) Poesia espresibide estetikotzat hartutakoan soilik asebate ahalko dituela gure beharrizan sozialak.
- c) Poesiak gure beharrizan estetikoak berdinduko dituela gizakion arteko komunikazibide dela onartzen zaionean.

5. Testuak dioenaren arabera, ...

- a) kultura-kudeatzaileek aspaldi dakite poesiak arrakasta handiagoa duela musika gozoarekin batera eskainita.
- b) antolatzaileek badakite olerki-segidak eramangarriago egiten direla musika-ikuskizunen baitan.
- c) haurrak botika irenste bezala, publikoari ere gozoren bat eman behar zaio olerki-emanaldietan.

6. Idazlearen ustetan, ...

- a) ez da harrizkoa poesia-albisteak eguraldiaren iragarpenaren aurretik izatea.
- b) poesia albiste den aldi bakanetan sariren berri emateko aitzakia aprobetxatu behar da.
- c) poetaren bat albistegietan agertzekotan, sariren bat irabazia behar du izan.

7. Zein da testuak dioenari ondoen egokitzen zaion baieztapena?

- a) Poetek ez dute ulertzen zergatik galdetzen dieten poesiak zertarako balio duen.
- b) Poetei gustatuko litzaieke erantzunak emateko orduan futbolariak bezain zintzoak izatea.
- c) Poetek nahiago lukete futbolarietako balitzaie futbolak zertarako balio duen.

3. TESTUA

Erritmoaren garrantzi kritikoa lasterketa luzeetan

UPV/EHUko Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saileko Jordan Santos-Concejero irakaslearen azterlan berri baten arabera, eliteko korrikalari kenyarrek ezin diote beren garunaren oxigenazioari eutsi, indarrak ahitu arte eta muga fisiologikoetatik gertu korri egitera behartzen dituztenean.

Azterlan horrek aurretik argitaratutako beste azterlan baten emaitzak ezeztatuko lituzke eta erresistentzia-probetan erritmoaren kontrolaren garrantzi kritikoa azpimarratzen du.

Hasierako azterlanak, UPV/EHUko Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saileko doktoreak egindakoak, aditzera eman zuen lasterkari kenyarrak gai direla beren garunaren oxigenazioa tarte egonkor batean mantentzeko erabateko ahalegina egin bitartean (5 kilometroko erlojupeko probetan) eta litekeena dela horrek laguntzea distantzia luzeko lasterketetan arrakasta izaten.

Hala ere, eta distantzia horretan erlojupeko proban lasterkariak beren erritmoa hauta dezaketenez, erabaki zen aztertzea lasterkarien garunaren oxigenazioak zein erantzun ematen zuen erabateko ahalegina egin bitartean, korrikaldiaren intentsitatea inposatu egiten zitzaizen tartetean. Horretarako, denbora-tarteka zatitutako test bat diseinatu zuen: 1.000 metroko errepikapenak egin behar zituzten, 5 kilometroko erlojupeko proben batez bestekoa baino % 5 azkarrago egin behar zuten korri, eta errepikapenen artean errekueratzeko 30 segundo zituzten.

Ariketa-protokolo horrek indarrak erabat ahitzea bermatzen zuen eta aurretik argitaratutako azterlanen emaitza batzuk gezurtatu zituen; lasterkari guztiek garunaren oxigenazio maila jaitsi zuten denbora-tartekako test horren amaieran.

Edonola ere, azterlaneko kenyarren garunaren oxigenazioaren jaitsiera beste edozein diziplinatako eliteko lasterkariak inoiz eman dutenaren gainetik dago. Horrez gain, eta harrigarriki, azterlaneko lasterkari onenak (1.000 metroko serieak egiteaz gain, erritmo handiagoan egitea lortu zutenak) garunaren oxigenazioaren jaitsiera handiagoak jasateko gai izan ziren, kolapsatu aurretik. Horrek aditzera ematen du faktore hori oso garrantzitsua dela gizakion errendimendua zehazteko.

Jordan Santos
Gorputz eta Kirol Hezkuntza saila (UPV/EHU)
Campusa, 2017-04-27
(moldatua)

8. Bigarren azterlanak zera baieztatu zuen:

- a) Lasterketa-erritmoa aukeratu ahal izateak ez duela eraginik garunaren oxigenazio-gaitasunean.
- b) Eliteko korrikalariak garunaren oxigenazioa egonkor mantendu dezaketela lasterketa-intentsitatea inposatua ez bada.
- c) Korrikalariak fisiologikoki mugara eraman ezean, erritmoari eustea ezinezkoa gertatzen dela.

9. Azterlanerako diseinatutako testean, ...

- a) lasterkariak batez besteko 5 kilometroko distantzia osatu behar izan zuten erlojupean 1.000 metroko serietan banatuta.
- b) erlojupekoan baino %5 azkarrago korrika egiten zuten lasterkariei 30 segundoko atsedenaldea eskaintzen zitzaien.
- c) errepikapenen artean 30 segundoko atsedenaldiak izanda ere, erlojupekoan baino azkarrago egin behar izan zuten korrika.

10. Zein da egia?

- a) Lasterkaririk onenak izan ziren garunaren oxigenazio-mailarik txikiena erregistratu zutenak.
- b) Azterlanean parte hartu zuten lasterkari onenek baino ez zioten kolapsoari izkin egin.
- c) Lasterkaririk onenek kolapsatu egin zuten oxigenazio-gaitasunik txikiena erakutsi zutelako.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan), eta gutxienez 250 hitzeko idazlan bat egin behar duzu, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. Ongi lotu idazlana gai horri.

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Zabalkunde-lanean ari zara (ez testu akademikoa prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIK (zure arloko bi gaietako bat aukeratu behar da)	
Arkitektura	Arkitektura-lehiaketak	Luis Peña Gantxegi
Arte	Arkitektura gotikoa	Muralismoa: Mexikotik Euskal Herrira
Biologia	Amazonas inguruko basoak	Herentziatzko ezaugarrien transmisioa
Ekonomia	Balantza komertziala: esportazioa eta inportazioa	Lan-merkatuaren prekarietatea
Filologia	Elebitasuna eta eleaniztasuna	Topikoak mendebaldeko literaturetan
Filosofia	Descartes eta Spinoza	Erdi Aroko filosofo islamiar eta juduak
Fisika	Uhin elektromagnetikoak	Grabitazio-indarra: orbita motak
Geografia	Kartografia	Paisaiaren aldaketa giza ekintzaren ondorioz
Geologia	Fracking-a: kontzeptua eta ondorio geologikoak	Itsas geologia
Gizarte zientziak	Iritzi publikoa	Demokratizazio-prozesuaren hedatzea
Heziketa fisikoa	Adineko pertsonen osasunerako jarduera fisikoa	Eskola-kirola
Historia	Erdi Aroko hirien garapena	Txina Aro garaikidean
Informatika	Errealitate birtuala	Birus informatikoak
Informazioa	Zer da telebista digitala? Zer aldaketa dakartza?	Gizonaren irudia publizitatean
Kimika	Atomoen egitura elektronikoa	Termodinamika kimikoa
Matematika	Zenbakien teoriak badu aplikazio praktikorik?	Konbinatoria-elementuak
Osasuna	Ardoa: gora doa ekoizpena, eskaera eta merkatua	Azukrea: tradizioz gozamen iturri, gaur arriskutzat hartua
Pedagogia	Curriculum irakastearen edukien hautaketa gisa	Gizartea eta hezkuntza
Psikologia	Adimena neurtzeko bideak	Indarkeria Eskolan
Teknologia	Garraioak eta garapen iraunkorra	Espektroranalisi
Zuzenbidea	Administrazio elektronikoa	Lan-jazarpena (<i>mobbing</i>)

IZEN-DEITURAK:

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

IZEN-DEITURAK:

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

IZEN-DEITURAK:
ARLOA:
IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):
AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZ GAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZ GAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: